

A. MARIAREN SORTZE GARBIARI

○ ○ BEDERATZIURENA ○ ○



PRANTZISKO DONEAREN EMAITZA

AITA AZKUE



M-8617  
R-36267

ATV  
18.886

AMA MARIAREN SORTZE GARBIARI

== BDERATZIURENA ==



AITA AZKUEK ERATUA



Dotxao Urigüen.—Bilbao

NIHIL OBSTAT

FR. PETRUS ARANGUREN

Censor Ordinis.

IMPRIMI POTEST

FR. ANTONIUS RECONDO

M. Prov.

NIHIL OBSTAT

LIC. PETRUS DE ANASAGASTI

Censor.

IMPRIMATUR

VICTORIÆ, DIE 6 FEBRUARII 1928.

† EPISCOPUS VICTORIENSIS

## OARA

Edestiak dionez badakigu Prantzisko donearen semeak Jaungoikoaren Amari oneraspenik sutsuena izan diotela. Irasle berak agindu zien "Goretsi al dezuten guztia Maria Jaungoikoaren Ama, ta bidezkoa danik ez berari ukatu" ta aiezkeroz Prantziskotafak bere aintzak zabaltzen ez dira aspertu, bere Sortze garbia batez ere. Au dala-ta atzaldu zan *Bederatziuren* au, liburu askoren artean txikiena, Mariaren Sortze garbia goratzeko. Aita Linazak atera zuan lenengo, zerbait luziegi, euskera mordoloan ordea; baño oraingoan atzaltzen danez laburago ta apañago dago.

Guztia Ama Mariaren goraltzarako izan bedi.

Zarautz, 1928 - Ilbelzaren 18 - an



## GURUTZE SANTUAREN...

### MAITE-DAMUA

Jesukristo nere Jauna, Jaungoiko ta egiazko gizona, nere Egile ta Salbatzailea, Zu sinistu, Zu itxaron eta beste ezer baño geiago Zu maite zaitudalako, Zure ontasun azkengabea ainbeste aldiz naigabetuaren damu naiz, eta asmo sendo bat artzen det pekaturik ez geiago egiteko, erorbideetatik aldentzeko ta oraiñarte egin ditudan oker guztiakatik penitentia egiteko. Ezagutzen det, Jaun erukitsua, onetarako zure laguntzaren bear naizala, ta auxe eskatzen dizut zure Ama gozo onen bitartez; bada Zuk beroni esana da, ez diozula ukatuko eskatzen dizunik, gu bere seme-alaben onerako izan ezkerro.

Ea bada Maria! Sortze unetik graziz betea ta eder-edeia atzaltzen zeran Ama gozo oril Gure bitarteko jañi zaite Jaungoikoaren aurrean, eta Beragandik iritxi zaguzu oraiñarteko gure pekatuen barkapena, beñiz geiago ez egiteko grazia ta gure animen garbitasuna. Amen.

## LENENGO EGUNA

Egun ontan gogoratu dezagun, Aita Betikoa bere aunditasunez inguratua, Semea jakinduriz beterik eta Espiritu Santua ontasunezko txingarak zerizkiola, Jaungoiko-Iru Personak betikotasun guztitik sendakai egoki bati begira egongo zirala, Adanen pekatuak munduan egin bear zituan kalte negargarria ksendatzeko.

Irutasun guztiz Deunak argiro ikusten zuan, ez Zeruan aingerurik, ez luñean gizonik, etzala iñoiz izango pekatuaren kalteak ordaindu al-tzitzakenik, eta oregatik Zeruko ateak betiko itxita egon bearuko zutela Adanen seme-alaba guztientzako. Gogorapen samin onek naigabe aundia ematen zion eta Adanen ondorengo guztiak zerutik aldenduak izatea iñolaz ere eziñ eramanik, Jaungoiko-Iru Personak Bere-tako bigarrena luñera etortzea erabaki zuten, Birgiña baten sabelean gizon egiñik, pekatua-ren zoñak ordainduta zeruko ateak beñero zabaldu zitzaiz. Baña nor izango ote da gizonaren izatea artzeko Amatzat aukeratuko zuan andre zorioneko ori? Zu o Maria! Zu zera Jaungoiko-Semeak amatzat aukeratu ziñuan izaki eder kidegabea. Irutasun guztiz Santuak zugana zuzendu zituan bere begi gozoak eta gizadi guztiaren artean Zu aukeratu ziñuan bere bizilekua izateko. Oregatik sortu ziñan Amaren



sabelean, ez besteak bezela, pekatuaren eta Luziferen mendean, Jaungoikoarekin aseŕe, goiko izar oiek baño ederagoa baizik, Jaungoikoaren alabarik maitagariena zeranez graziz betea.

---

Gogoratu beza bakoitzak eta eskatu beio Jaunari Ama Mariaren bitartez opa duana.

---

Iru Aitagure, Agur Maria ta Gloria Irutasun guztiz Santuari esker ona agertuaz Ama Mariari bere Sortzean egiñ zizkion ongiakatik.

---

### AZKEN-OTOITZA

O Maria, pekatarien Ama erukioŕa ta gozotasunez betea! Aita Betikoaren Omena, Jaungoiko-Semearen bizilekua ta Espiritu Santuaren ixpilu argia, Zeruko grazien ekartzalea ta Jaungoiko aseŕatuaren eta gu pekatarien artean egiazko pakeak egiten dituzuna! O Ama! Nork Zu goratu ez? Zeñek maite izango etzaitu? Eta nork jaŕi naiko ez du zure ardurapean? Zu zera gure adimen ilunak argitzen dituzuna, gure naigabe ta baŕengo estutasunak arintzen

dituzuna: Zu erorbideetatik zaitu ta etsaien zirikaldiei gogor-egiten irakasten diguzuna. Zu zera grazi guztien iturria, Zu zerurako bidea ta ara igotzeko eskalera zuzena: Zorionekoak O Maria! zure mirabetzan bizi ta Zu maite izaten dakitenak. Eta irabaziko ote det nik zorientasun au Zu goratzeko egiten ari naizen bederatziurén onetan?

Ea bada, Ama maitea, naiago det nik Zuk neri begiratzea, Zu nitzaz oroitzea, zure esku ongilea nigana luzatzea ta zure babespean ni artzea, munduko ondasun, aundiuste ta atsegiñ guztiak baño. Begira zadazu bada, aŕen, gaurdanik nabilen leku guztietan, emendik aurrera Zuk lagun egiñik etsai guztiak azpiratuta, Jaungoikoarenakin batean zure arpegi edera zeruan ikustea ta gozartzea beti-betiko merezi dezadan. Amen.

## AZKEN-AGURĀ

Onetsi bedi zure Soŕera  
Betikotasun guztian,  
Jaungoiko ber-bera alaitzen da  
Edertasun ain aundian,  
Zeruko Eŕegiñ kidegabea  
Birgiñ guztien lorea!  
Gaurtik dizkizut zuri eskeintzen  
Bizitza, biotz et'anima;  
Begira eŕukiz, ez utzi, aŕen  
O nere Ama maite-maiteal

## BIGAREN EGUNA

Bigaren egun onetan gogoratu dezagun, Jaungoikoak Maria bere Ama izateko aukeratu zuan une ber-berean, pekatuaren kutsu guztietatik onez atera zuala ¿Eta zer adierazo nai du grazi onek? Adanen pekatua dala-ta bere ondorengo guztiak amaren sabelean pekatuz zikinduak etsaiaren mendean, Jaungoikoarekin asefe ta infernurako bidean sortzen dirala. Aur sortu beña baño erukañagorik ezin. Baña Maria sortua izan zan lenengo une artan aingeru danak ariturik geratu ziran bere edertasunari begira: ta lokatzez betetako lurgain onetan gizaki zoragañi au ikusirik, Irutasun Deunak, berak baño ere gorago apaiñ-apaiñ jañi zuala ezagutu zuten. Ondo ezagutzen det zein izakera erukañi ta negargañian utzi niñuan Adanen pekatuak, eta nere anima bataio santuan garbitua izan bazan ere, zein griña txararak zirikatzen duten aldioro ta une guztietan! Begira bada, Ama erukioña, begira bizitza onetan nere animari ta anima guztiei, baña begira zaiezu batez ere erorbide ta galbideetan bizi diran gaztiei beren zenzumen guztien garbitasuna zaitu dezaten, aingeruen garbitasunaz bizitza au igaro ezkerro, zure edertasuna gozartzeko beren lagun zeruan izan ditezen. Amen.

## IRUGAREN EGUNA

Irugarén egun onetan gogoratu dezagun, aungoikoaren jakinduriak Aingeruak milaka lendanik izendatu zituala, Maria beren éregiña zaitzeko, amaren sabelean sortzen zan lenengo une artan batez ere, infernuko etsaiak menderatuta galdu etzediñ, beste Adanen seme-alabak menderatuta galtzen dituan bezela. Onela Jaungoiko Alguztidunak bere azkengabeko jakinduriz eratu zituan gauza guztiak, Amatzat aukeratua zeukan andre eder au mundura bialtzea erabaki zuanean. O Maria Irutasun guztiz Deunak beretzako apindutako jauregi garbi-edeñal! O goizaldeko izar argia! Noiz agertuko zera mundu onetan? ¿Noiz aditzera emango diguzu gabeko ilundiak igaro dirala, ta ain maite degun egun argi ta eder ura laxter datorkigula? Izar asko ikusi izan ditugu gaue-tan, ta edeñak alare, baña ez oraindik goizaldeko izar kidegabekoa zeran ori bezelakorik. Oraindaño ikusi izan ditugu emakume bikañ asko, baña ez oraindik Zuk aña birtute duanik eta Zu bezela apaindutakorik. Ona zan Abisaig, onak ziran Susana ta Sunamitis. Beren lenengo unea gogoratzean, ordea, esan bear izan degu: Ai! Luziferi burua zanpatu bear diona ezin diteke oietako iñor izan, Adanen beste semealabak bezela pekatuz zikinduta

datoz-eta. Zugan ipintzen det bada nere itxaropen guztia, o Ama laztana! ta uste det nere griñak menderatzen eta nere anima garbi zaitzen lagunduko didazula, azkeneko grazia ta betiko bizitza iritxi ditzadan. Amen.

## LAUGAREN EGUNA

Laugarren egun onetan gogoratu dezagun, Jaungoikoak Noe Aitalen Santua ugalde izugarri artatik onez atera zuan bezela, Maria ere Adanen pekatuak ekañi zituan ondamentetik onez atera zuala. Jaungoikoaren zuzentasunak erabaki zuan mundu guztia urpean sartzea gaiztakeriz usteldua zegolako; ta zigorkada artan ondatu bearko zuan Aitalen Santu ark ere, baldin Jaungoikoak erukirik izan ez balio ta agindu bere famili guztiakin ontzi batean sartu zedila ito etzedin. Zer esker on agertu etzizkion Jaungoikoari famili arek ongi onegatik, berak ez beste guztiak ito ta galduak ikusi zituztenean batez ere! Alaxe bada Maria ere Adanen pekatuz kutsutua ta infernuko etsaiaren mendean sortua izango zan, baldin Jaungoikoak bere Amatzat aukeratua zeukalako, onez atera izan ezpalu. Beste aur guztiak beren buruak infernuko etsaien artean arkitzen dituzten une artan, Maria bakañik arkitu zan aingeruen artean eta auek lagun zituala. Zein sañera berezia egin zuan Mariak mundu one-

tan! Nolako esker onak emango zizkion Jaungoikoari bere anima ain ederki apaindua ta alako adiskideen artean ikusi zuanean!

## BOSKAREN EGUNA

Boskaren egun onetan gogoratu dezagun, Jaungoikoak Maria guztiz Donearen anima zeruko ondasunez aberastu zuala, Amaren sabelean sortu zan une berean, beroni munduan izan diran eta izango diran Santuai ta aingeru guztiei baño ere grazi geiago emanaz. Ez da izan munduan santurik, ez eta zeruan aingerurik, Jaungoikoak orduan Mariari egin zion esker aundia ondo ezagutu dezakenik. Jaungoikoak bere mirabe izateko egin zituan aingeruak, eta oregatik etortzen dira mundura Jaunak agintzen dienean, mirabea joaten dan bezelaxe nagusiak agintzen dion lekura. Bañan Jaungoiko-Aitak Maria bere alaba izateko egin zuan, Semeak bere Amatzat artzeko ta Espiritu Santuak bere Emaztetzako. Au dala-ta dago aingeru guztiak baño gorago beren Eregiña eginik. Zer poz eta atsegiñak artuko zizuzten Aingeruak, beren Eregiña izan bear zuana, Maria amaren sabelean sortu beria ikusi zutenean! O egun, ordu ta une zorionekoa, Maria, zure amaren sabelean sortu zihan ura! Egiazki esan diteke mila aldiz zorionekoa dala! Aitortu bear dezu bai, o Ama gozoa, une

artan Jaungoikoak munduko birtuteen eta zeruko ondasunen jabe egin ziñuala. Baña, begira, o Ama erukitsua, begira, Jaunak birtute ta ondasun oiek gure artean ere zabaltzea naidu, bederatziuren au egiten ai geranen artean batez ere, munduan birtutez eta zeruan gloriaz zurekiñ apainduak izateko zoriona iritxi dezagun. Amen.

### SEIGAREN EGUNA

Egun onetan gogoratu dezagun, Maria guztiz Doneak lenengo unetik, geroago agertuzuan adimen argi ura bera izan zuala. Une artan eta Amaren sabelean zegola, ezagutu zituan Jaungoikoaren aunditasun eta birtute kidegabeak, eta oretxegatik asi zan orduan bertan Jauna maite izaten eta Beroni eskerak ematen, zeru-lurretako aingeru ta Santuak emango dizkaten baño geiago, Adanen beste seme-alabak aiñ erukañiak sortzen diran une artan, pekatuaren kutsutik aldendu zualako. Baita orduan bertan naigabearen naigabez negar egingo zuan ere, malko ugariak zerizkiola, bere Maitearen kontra ainbeste pekatu egiten ari ziralako Adanen semeak. Badakizu zuk o Maria! mundu au alde guztietatik olatuz inguraturik dagon itxaso aroa dala. Nola bada garaitu laguntzale gabe? Zu zera Jaungoikoaren uren izan algenezaken laguntzalerik onena. Lagundu bada neri o Eregiñ erukitsua ta es-

kuak graziz beterik dauzkatzunal lagundu neri ta bederatziurten au egiten ari diran guztiei, gure azken aldietan, eriotzaren ondoren egiazko kaiara eldu gaitezten. Emengo galbideak igaro ostean nai degun bizilekua zerua da. Lagundu ba, aŕen, lagundu zeruan alkar ikusi artean. Amen.

### ZAZPIGAŔEN EGUNA

Zazpigaŕen egun onetan gogoratu dezagun, goizaldeko izar argi edeŕa eguzkiaren auŕetik ateratzen dan bezela, alaxe Maria ere egiazko eguzkiaren auŕetik mundu onetan azaldu zala, gizonari Salbagilea beren artean laxter izango zutela aditzera emanaz. Izar eder aŕen zeinkiak berak ekaŕi zituan Ama Mariak amaren sabeletik. Zeintzuek dira ba beste izaŕen artean beresten duten izar aŕen birtuteak? Beste guztiak baŕno argiagoa da; edertasunean eguzkia bera dirudi; garbitasunean etzaio batere zikiñik ikusten; aundiz beste guztiak baŕno ere aundiagoa da. Au dala-ta goratu izan dute gizonak beste izar guztiak baŕno geiago. Era berean Maria une zorioneko artan beste santu ta aingeruak baŕno aundiagoa izan zan birtuteetan; edertasunean eguzkia bera, au da, Jesukristo gure Jauna bera zirudiñ; garbitasunean beriz etzaio iñor ez zeruan, ez luŕean uŕeratu ere egiñ.

O Maria egiazko izar argia, aldi ain egoki-



an munduan agertu ziñana, bost mila urte aietako ilundiak kendu ta egiazko egun edera laxter zetoñela aditzera emateko! Esker mila Jaungoikoari, esango zuten guztiak egun artan, esker mila, Zu bialdu ziñualako. Ta Zuri ere mila ongi etoñi egingo zizkitzuten noski, egun ain argiaren eta edeñaren ezaupideak ematera etoñi ziñalako. Nik ere, Maria, Jaunari mila esker-on agertzen dizkat eta beste ainbeste ongi-etorñi egiten dizkitzut goizaldeko izar edera zeran orñi.

## ZORTZIGAREN EGUNA

Zortzigañen egun onetan gogoratu dezagun, Maria guztiz Donea amaren sabelean birtute guztiakin apaindua ain ederki sortuta mundu onetara pekatuaren kutsurik gabe, ilargi eder osoa bezela, grazian eta edertasunean kidega-bea atzaldu zanean, Jaungoikoak berealaxe aginduko ziela Aingeruai, denboraz beren Eñe-giña izan bear zuan ume bedeinkatua goratu zezatela, ta eraman Jaungoikoarengana zegokion izena Beronek jañi bear ziola-ta. Irutasun guztiz Santuak Aingeruak entzuteko eran esango zuan noski "Maria da gizaki orñen izena" Izen au ipiñi zionean sinisteko da, apainduri asko emango zizkiola izen onen edergañitzat. Aitak batez ere emango zion bere al-guztia, Semeak jakintza ta Espiritu Santuak naimenik sutsuena, bere izenari zegokionez mundu one-

tako eginkizunak egoki baño egokiago bete zitzan. Zer esan nai du bada Mariak, izen onek? Itxasoak eta bideak argitzen dituan iparaldeko izar argi edera. Ta zein ederki egin izan duan Mariak bere bizitza guztian izar orek itxasoetan egin oi duana. Izar onek itxasoko ilundiak kenduta argi egiten du; ta zer poza artzen duten itxas-gizon gizarajoak izar ori ikusten dutenean! Alaxe Mariak ere deabruak pekatuaren ilundian artutako anima askori argi egin izan die, ta argitasun au dalata ikusi izan dute, zein oker ibili diran, galtzeko zorian eta zer egin bear duten egiazko kaiara eltzeko. Izar argi orek jartzen ditu bide zuzenean itxasoan galduta dabiltzanak. Eta Mariak eziñ esan ala pekatari, beren atsegin zikiñ-debekatuetan galdu izan diranak, zeruko bide zuzenean jañi izan ditu, ta lagun egin izan die zeruan sartu arte.

## BEDERATZIGAREN EGUNA

Egun onetan gogoratu dezagun Jaungoikoak Maria guztiz Donea bere amaren sabelean sortu zan une artan, lore zuri-gofi edere bezetako baratza bat bezela egin zuala, birtute guztietzaz apaindua. Egiazki Mariaren izaki ain eder au egitean Aita Betikoak bere aunditasuna agertu nai izan zuan, Seme Jaungoikoak bere jakinduria ta Espiritu Santuak bere

ontasuna. Irutasun guztiz Santuak bada ařigari-  
rizko eran apaindutako loretegi bat bezelaxe  
egin zuan Maria. Bi orma aundiz inguratu  
zuan Jaungoikoak zorioneko baratza au, emen-  
go lore edeřak zikintzera lapur gaiztoaren bat  
iñoiz sartu etzediñ: au da, bi graziz apaindua  
egin zuan Jaungoikoak Maria; jatorizko peka-  
tutik aldendua ta pekaturako griña ta nairik  
gabe. Ořegatik etzan iñoiz inpernuko deabrua  
sartu izan Mariaren anima edeřa zikintzera,  
ez eta birtuteak kentzera ere. "Alde guztietatik  
ondo itxitako baratza zera alaba maitea" esan  
zion zeruko eřegeak sortu zan une berean, lore  
edeřez apaindua. Nola berotuko zan Mariaren  
anima Jaungoikoaren maitasunean itz auek  
entzun zituan une artan! Eta zein ondo eza-  
gutuko zuan ongile au maite beařean zegoala!  
Egoki agertu zuan maitasun au Mariak bere  
bizitza guztian! Ikasbide edeřa, beti jařaitu  
bear geniokena! Zenbat grazi eder artu izan  
ditugun Jaunaren eskuetatik! Baña erantzun  
izan al diegu? A Maria! lotsa naiz orainda-  
ñoko nere bizitzari begiratuta, eta damuaren  
damuz gořotatzen ditut nere txarkeri guztiak.

### GORALTZAK

Ant. ȳ. Tota pulchra es, Maria. R. Tota  
pulchra es, Maria. ȳ. Et macula originalis non  
est in te. R. Et macula originalis non est in te.  
ȳ. Tu gloria Jerusalem. R. Tu lætitia Israel.

ŷ. Tu honorificentia populi nostri. R̄. Tu advocata peccatorum. ŷ. O Maria. R̄. O Maria. ŷ. Virgo prudentissima. R̄. Mater clementissima. ŷ. Ora pro nobis. R̄. Intercede pro nobis ad Dominum Jesum Christum.

ŷ. In conceptione tua, Virgo, Immaculata fuisti.

R̄. Ora pro nobis Patrem, cujus Filium peperisti.

### OREMUS

Deus, qui per Immaculatam Virginis Conceptionem dignum Filio tuo habitaculum præparasti: quæsumus; ut qui ex morte ejusdem Filii tui prævisa, eam ab omni labe præservasti, nos quoque mundos ejus intercessionem ad te pervenire concedas. Per eundem Christum Dominum nostrum. R̄. Amen.

---

*Laus Deo, Immaculatae Deiparae*

*et*

*S. P. N. S. Francisco.*









18